

Aleazio metaliko aurreratuen konformaketaren workshopa

2015/06/15

Jardunaldia Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoko Materialak Eraldatzeko Prozesu Aurreratuen ikerketa-taldeak antolatuko du eta honako enpresa hauek parte hartuko dute txostengile gisa: FAGOR ARRASATE S. Coop.ek, MATRICI S. Coop.ek, BATZ S. Coop.ek, ULMA Piping S. Coop.ek, ALFA Taldeak eta CIE Automotiviek, baita ORTIC 3D AB enpresa suediarrek ere. Jardunaldia 8:30tan hasi eta 18:00tan amaituko da.

Ingurune industrialetan aleazio metaliko ez-konbentzionalak prozesatzeko dituzten arazoak eta horiei aurre egiteko baliabideak aurkeztea da jardunaldiaren helburu nagusia. Jardunaldia hiru multzo handitan banatuko da. Lehenengoan, arrabola bidezko etengabeko eraldatze-prozesuak jorratuko dira, baita arrabola bidezko lauketa, slitting ebakidura aldakorreko prozesu berritzailea eta 4. belaunaldiko profilaketa malgua ere. Horren ostean, automobilgintzako osagaien forja eta konformaziorako teknologia berritzaileak aurkeztuko dira: erresistentzia ultra altuko altzairuen enbutizio-teknologiak, altzairuen eta aleazio arinen beroko estanpazioa eta thixokonformazioa. Azkenik, aeronautikako osagaien konformaziorako teknologiak deskribatuko dira, eta beroko estanpazio-prozesuak, konformazio superplastikoa, mailu bidezko forjaketa eta huts altuko titanio-galdaketa landuko dira.

Jardunaldia amaitzeko, MUko konformazio-laboregietara egingo ditugu bisitak. Han, workshopeko teknologia gehienak erakutsiko ditugu, eta piezak makinan fabrikatu. Informazio gehiago [hemen](#).

